



**SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko  
ikergunea

---

# Soziolinguistika albistaria

---

**93. zenbakia**

2021eko urtarrilak 28 – otsailak 10

---

## Soziolinguistika Klusterreko albisteak

**Txillardegi-Hausnartu Soziolinguistika Sarietako artikuluak BAT 117 aldizkarian irakurgai**

Argitaratu berri da Txillardegi-Hausnartu Soziolinguistika Sarien 2020ko edizioan jasotako lanak biltzen dituen zenbaki berezia (117). Bertan, honako lan hauek irakur daitezke:

---

## Ikerketak

**Eusko Jaurlaritzak 30.000 euro bideratuko ditu hizkuntza eta generoaren inguruko lau bekatar**

(Ireki) Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak Berdintzen 2021 programa jarriko du martxan euskara eta genero berdintasunari buruzko ikerlanak egiteko. Guztira lau beka izango dira, bakoitza 7.500 eurokoa. Guztira 30.000 euroko aurrekontua du prog...

**Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa 2021 Sarietarako deialdia zabalik**

(Eusko Ikaskuntza) Martxoaren 28an bukatuko da Humanitate, Kultura, Arte eta Gizarte Zientzien arloetako curriculumak onartzeko epea, baita gazteentzako sormen edo ikerketa proiektuak aurkezteko epea ere.

## Euskaltegiek 2.000 ikasle galdu dituzte

(Berria) Euskaltegietako matrikulazio kanpainara ere iritsi da pandemiaren eragina. Azken lau urteetan, urtez urte gora egin du euskara ikasten edo alfabetatzen ari ziren helduen kopuruak, baina 2020-2021 ikasturteak orain arte utzitako datuen arabera, iaz baino 2.07...

## Oier Zearra, Gasteizko Berritzegunea: "Pandemiaren erruz, ikasle askoren kompetentzia linguistikoa gutxitu egin da"

(Euskaraba) Gasteizko Berritzeguneak ikerketa bat egin du, "Araba Hezitzaile" programaren barruan, Arabako ikastetxeetan, pandemiak ikasleen ahozko kompetentzia linguistikoan izan duen balizko eragina neurtzeko. Ikerketa horri buruz, eta hortik ateratako ondorio ...

## Eboluzio soziolinguistikoa, arnaguneak "urtzen" eta beste sintoma batzuk

(Sustatu) Kike Amonarriz soziolinguistak EAeko "VI. mapa soziolinguistikoari" begiratu dio, zenbait datu eta grafiko azpimarratuz. Ez da azken-azken orduko informazioa, ze mapa urrian kaleratu zen, eta datuak 2016an bildutakoak dira. Hala ere, Amonarrizen irakurketa ...

---

## Jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroak

### IkerGazte2021 kongresuan artikulu zientifikoak aurkezteko deialdia ireki da

(Unibertsitatea.net) IkerGazte2021: Nazioarteko Ikerketa Euskaraz Kongresuaren 4. edizioa egingo da Gasteizen 2021eko ekainaren 9tik 11ra. UEUK antolatzen duen ekimena da IkerGazte eta helburu nagusia ikertzaile gazte euskaldunak biltzea eta egiten duten lanari ikusg...

### Webinar "Immersion education model in bilingual communities"

(NPLD) The NPLD will organize the webinar "Immersion education model in bilingual communities" on 22 February at 12h00 CET. Immersion education is a pedagogical model in which students receive their subject-matter instruction through the medium of a target language....

### Linguapax launches the MOOC "Language Diversity: What For?"

(Linguapax) Linguapax has just presented the course «Linguistic Diversity, What For?».\*. Linguistic and cultural diversity become more and more evident everywhere, but their importance, their scope and their implications are often neglected. . For this reason we in...

## **Jauzi bat behar dugu hizkuntza politikan eta euskalgintzak arnasberritzeko bide berriak behar ditu**

(Argia) Plaza Hutsa ekimenaren 2021 edizioko irekiera hitzaldia, Sortuko Pello Otxandianoren eskutik. Ekimenari buruzko informazio gehiago beren webgunean eta irakurketa politikoa dokumentu honetan.

## **Arnasguneen etorkizunerako hainbat gako Lurraldea eta Hizkuntza V. jardunaldian**

(Kontseilua) Arnasguneen garapen jasagarriaz hausnartzeko plaza izan da beste behin Lurraldea eta Hizkuntza jardunaldiaren bosgarren edizioa. Gipuzkoako Foru Aldundiak, Euskalgintzaren Kontseiluak, UEMAK eta UEUK antolatuta, Donostiako San Telmo museoa egin da urta...

---

## **Liburuak eta artikulu zientifikoak**

### **"Ez da mattetzen erakutsi" : Azpeitia, hitanoa eta generoen arteko arrakala**

(HABE) Hitanoaren erabileran alde handia dago igorlearen nahiz hartzailearen generoaren arabera: joera orokortua da hika gutxiago egiten dutela emakumeek, eta egiten zaiela emakumeei, eta gizonen arteko erabilera gailentzen dela. Ikerketa honetan Azpeitian hitanoarek...

### **Euskararen bizia: Andoaingo argazki soziolinguistikoa, 2016**

(HABE) Patxi Baztarrika. Labetik atera berria, kalean da, eta aurki izango da ohiko banaketa zirkuituan eskuragarri, "EUSKARAREN BIZIA. Andoaingo argazki soziolinguistikoa, 2016" izenburua jarri diodan liburua. Duela hiru aste eskas argitaratu eta aurkeztu du Ando...

### **Claves para entender el multilingüismo contemporáneo (Martín; Pujolar (coords.))**

(Xarxa CRUSCAT) El libro ofrece una explicación de nuevos conceptos y teorías sociolingüísticos orientada a la formación de jóvenes universitarios e investigadores, e incluye propuestas de actividades didácticas y lecturas complementarias. En este contexto, lo...

## Language policy in business: discourse, ideology and practice

(HABE) Language Policy in Business: Discourse, ideology and practice provides a critical sociolinguistic and discursive understanding of language policy in a minority language context. Focusing on Welsh-English bilingualism in private sector businesses in Wales, the ...

*Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean HABE Liburutegira ([liburutegi@habe.eus](mailto:liburutegi@habe.eus)), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.*

## Bestelako albisteak

### Elkarrizketa elebidunek funtzionatzen al dute?

(Argia) Asier Lafuente Aguraingo euskaltzalea da eta Euskaraldian Arabako Lautadako koordinatzailea izandakoa. Uste du elkarrizketa elebidunak pentsaezinak zirela orain dela gutxi arte: "2016ra arte ez zitzaigun halakorik burutik pasa ere egiten. Nola egin guk eusk..."

### «Hizkuntzari lotutako harrera bazterrean geratu izan da»

(Berria) Euskaltzaleen Topaguneak antolatuta, Topaldia jardunaldia egingo dute gaur Bilboko Bizkaia aretoan. Egungo hizkuntza aniztasunean euskararen biziberritzea nola kudeatu aztertuko dute. Mario Zapata soziologoak (Iruñea, 1966) emango duen hitzaldian, migratzaiz...

### Herriko Etxeak eta euskara: zerbait mugitzen ari da

(Naiz) Ipar Euskal Herriko herriko etxeetan euskara sustatzeko hizkuntza politikan dauden baliabideak eskasak dira oraino. Lurralde osoa kontuan harturik, tokiko bost postu eta erdi daude euskara teknikari lanerako: Biarritzen hiru, Baionan bat eta erdi eta Hendaian ...

### Euskara normalizazioaren bidegurutzeetan

(Emun) Normalizazioa da euskararekin lotuta gehien azaltzen den hitzetako bat. Baina zer da normalizazioa? Denok gauza bera ulertzen dugu? Noiz dago euskararen erabilera normalizatuta? Gure helburua euskaren erabilera normalizatzea bada, adierazten ari gara euskarare...

## University of Liverpool doctoral studentship

(Xarxa CRUSCAT) The Department of Modern Languages and Cultures at the University of Liverpool invites applications for one E. Allison Peers Memorial Doctoral Studentship in Iberian and Latin American Studies, to begin in October 2021. The studentship provides full f...



**SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko  
ikergunea

### Babeslea:



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

### Bazkide partaidea:

**emun**<sup>®</sup>  
Euskara eta  
berrikuntza soziala